

ALFONSO IRIGOIEN ETXEBARRIA

Igazko abenduaren 16an Alfonso Irigoien Euskaltzaina hil zen Bilbon, itxuraz garrantzirik gabeko ebakuntza izan ondoren, dirudienez tronbosi batekin korapilaturik. Bi aste lehenago, Durangoko Liburu eta Disko Azokaren arrimuan berarekin erabateko normaltasunez mintzatzeko eta bazkaltzeko aukera izan eta gero, haren ustegabeko heriotzak guztiok erabat hunkitu gintuen. Euskaltzaindiaz eta haren lagunez gainera, euskal filologiak ere galera mingarria izan du, bere 67 urteetan Alfonso bere sormen eta buru-ahalmen osoen jabe zela kontuan izanik. Ondoko lerro hauekin haren bizitzaren eta lanen berri eman nahi dugu, laburki bederen, bildu ahal izan ditugun datuen arabera.

Alfonso Irigoien Etxebarria Bilbon jaio zen 1929.eko azaroaren 14an, langile familia batean. Ama arratiarra zuen, Areatzakoa, aita, aldiz, Zumaiarra, eta, beraz, txikitandik etxean bertan izan zuen bizkaiera-gipuzkerak bereganatzeko aukera. Gerra garaian, kaleko giro gogoretik ihes egiteko, gurasoek amaren baserrira bidali zuten, Arratiko euskara errotik ikasiz. Gerra ondoan Bilbora itzuli eta irudigintza eta kontabilitate ikasketak egin zituen. Osaba baten okindegian lanean ihardun zuen, aldi berean lantegi baten kontabilitatea eramanez. Sasoi horretan bertsozaletasuna piztu omen zitzaion.

Euskara eta bertsoarritza ez zituen, ordea, maite bakarrak. Gaztetandik pinturazalea ere bazen Alfonso, eta ez edonolanahikoa. Seber Altuberen irudi ezaguna, kasu, hainbat lekutan argitaratua, hari zor diogu, bai eta bertsolari txapelketen eta Euskaltzaindiko bilera batzuen zuri-beltzeko zirriborro bikainak ere. Bilbon pintura erakusketa batzuk egin zituen eta La Gran Enciclopedia Vascak kolorezko koaderno eder bat argitaratu zion. Haren etxea bisitatu duen orok badaki zer nolako koadro bikainak zituen paretetan, berak eginak. Pintatzen hil arte segitu zuen eta azken aldian eskulturak egiteari ekin zion; brontzeko figurak batez ere.

Euskal arloan Azkueren aldamenean egin zituen lehen urratsak. Lekeitiar maisua hiltzean Euskaltzaindiko langile moduan hasi zen 1955ean eta bi urte geroago, 1957.eko uztailaren 26an euskaltzain urgazle izendatu zen. Akademian zelarik, hainbat liburu argitaratu zituen: *Lardizabalén Testamentu Berriko Kondaira edo Historia* (Bilbao, 1957) eta *Euskal kantak* (Bilbao, 1959 eta 1960). *Euskera* aldizkariaren arduradun izendatu zen 1963ean eta aldizkari horretan hainbat artikulu publikatu zituen, horien artean —Aportaciones al diccionario vasco— (1956), —Cartas de Mariano Mendigacha a Don Resurrección María de Azkue, escritas en roncalés y en castellano— (1957), —Cartas de Inchauspe al Príncipe Luis Luciano Bonaparte (1857-1887)— (1957), —Del epistolario de Azkue— (1957), —Berkak eta izkuntza— (1959), (Aita J. Mokoroarekin batera.) —Sermones manuscritos antiguos. Fr. Francisco Tristán de Huandurraga (1822), Fr. Juan de Ajuria (1800) (1806)— (Euskera, 1960), —Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaíno literario— (1958). *Egan* aldizkarian —Bilbaotik— eta —Munduz mundu— idazlanak eman zituen argitara 1958an eta *Anaitasuna* aldizkarian beste artikulu eta lantxo ugari ere bai.

Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan Alfonso Irigoienek X. Peña, Goenaga eta E. Erkiagarekin batean euskal eskolak ematen zituen eta Nazario Oleagaren laguntzaile gisa, idazkari-lanak eginez. Haren heriotzaz gero, 1963etik, Euskaltzaindiko bigarren idazkaria izan zen, 1966an idazkariorde izendatu arte.

Ikastolen mugimenduari ere bere emaitza egin zion Alfonsok, berak Diputazioan egindako gestioei esker Juliana Berrojalbiz andrea aurrera atera nahian zebilen R. M. Azkue ikastola, Bizkaian legez onartu zen lehenbizikoa, 1958.ean ireki baitzen. Zentro hau geroago Lauroko Ikastola bilakatuko zen.

Bera zen, halaber, Euskaltzaindiak Bilbon urtero egin ohi zuen jaialdiaren antolatzaila. Baina garai honetan Alfonsok lanik nabarmenena bertsoaritzaren alde bete zuen. Bera izan genuen, Santi Onaindia, Manuel Lekuona, Antonio Zavala, Jose Maria Satrustegi eta Pedro Diez de Ulzurrunekin batera, herri-literaturaren arlo hau birpizten sutsuenik saiatu zirenetako bat, eta bertsolariak ordurarteko aurriritziengatik zokoraturik zeudeneko giro ilunetik ateratzen ahalegindu zen. 1958. urtean hasita, Bizkai guztiko txapelketak eta eskualdeetako txapelketa txiki ugari antolatu zituen, eta Nafarroa eta Gipuzkoako txapelketa eta bertsolari-jaietan ere parte hartu zuen luzaro. Ez da harritzekoa, hortaz, duela bi urte Euskal Herriko Bertsolarien Elkarteak, merezimendu nabarmen horiek gogoan, Alfonsori esker oneko omenaldia eskaintzea.

Gerra ondoko garaian, frankismoaren debeku gogorrez gainera, gure hizkuntzak ba-zeukan beste mehatxu bat gainean, eta ez txikia, garbizalekeria alegia, praktikan gure hizkuntza zikiratzen zuena. Hortaz, Irigoienek, korrontearen kontra abiatuz, Villasante eta Mitxelenaekin batera, purismoaren aurkako eta euskal lexiko tradizionalaren aldeko adierazpen famatuaren alde jokatu zuen 1959ean, erdal jatorriko euskal lexikoa patri-monialtzat aldarrikatuz. Horrek premiazko arnasa berria eman zion gure literaturari, gal-duriko euskal tradizioaren bidera itzultzer lagunduz.

Politika arloan Alfonso, beti bere independentzia gorde arren, kezkatu ibili zen frankismo garaian Euskal Herriaren egoera larriaz. Hori dela eta, Txillardegi, Julen Madariaga, Benito del Valle eta orduko beste intelektual batzuekin harremanetan aritu zen bera ere, gerora hain erro luzeak utziko zituen Ekin taldearen partaide gisa. Geroztik, Bilboko politika eta kultura bilera klandestino askotara joaten zen, sozialista, komunista eta abertzaleen artean ibiliz, aniztasuna eta errespetua gidari.

Euskaltzain oso 1963.eko maiatzaren 18an izendatu zen. Garai hartan ohitura izaten zen bezala, ordea, sarrera-hitzaldia askoz ere beranduago irakurri zuen, 1974.eko ekai-naren 15ean, non eta Donemiliaga Kukulan, Monasterio horretako euskal glosen eta toponimiaren gainean datu interesgarriak emanez. Erantzun, L. Villasantek egin zion.

Nik 1964. urte inguruan ezagutu nuen Alfonso, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, Ibaiondo kalean. Hara zerbait kontsultatzer joan nintzela uste dut, edo agian kuriositate hutsez, Euskararen Akademia barrutik nolakoa zen jakiteko. Gogoan dut oraino arratsaldea zela eta *enterratu / lurperatu / ehortzi / lurra eman* hitzak zirela eta, eztabaida bat izan nuela bertan zen beste pertsona batekin. Geroago Gabriel Aresti zeritzola ja-kingo nuen.


Bere goi mailako ikasketak Salamancan burutu zituen Irigoienek Filologia Klasi-koaren arloan, jadanik gizon heldua zenean, eta ordutik zetorkion, noski, beti erakusten zuen latin eta greziera zaletasuna. Han, beste zenbaiten artean, Koldo Mitxelena izan zuen irakasle.

1970.eko uztailaren 29tik 1978.eko azaroaren 24 arte Euskaltzaindiko bibliotekari izan zen. J. Antonio Aranak 1992-2 Euskera aldizkarian gure bibliotekaz egindako historian Alfonso liburuzain izan zen garaiko aipamenak xeheki kontatu dituzenez, hemen lan hori gogoratu besterik ez dugu egingo.

60en hamarkadaren bukaeran Deustuko Unibertsitateak euskara-irakasle gisa hartu zuen, eta geroago, hango irakasle katedraduna izan zen, Euskal Filologia espezialitatean eskolak emanez. Haren ikasle izandakook parada ederra izan dugu haren jakituriaraz jabetzeko. Unibertsitateko irakasle bilakatu zen garai honetan Libe Alkorta lekeitiarrarekin ezkondu zen, eta harekin seme bat izan zuen, Eneko, duela gutxi abokatu ikasketak bukatu dituena.

Bilboko semea izan arren, Irigoienek harreman handia izan zuen Lekeitio eta Aulestiarekin ere, haren emaztea, esan berri denez, eskualde horretakoa zelako. Izan ere, azken herri horretan etxe bat zuten, eta hortxe egoten zen asteburu eta oporretan. Horrek aukera ederra eman zion inguruko euskararen ezaugarri fonetiko eta azentuzkoak aztertzeko, toponimia ahantzi gabe.

Alfonso, pintatzaile, ikertzaile, irakasle eta eskultore izateaz landa, idazle eta poeta izan dugu. Gorago aipaturiko lanez gainera, *Sorterriaren alde* izeneko obra idatzi zuen, gaztaroko oroitzapenekin, eta *Hi eta ni garade zu*, *To ez date no*, *Orbel eta orri* poemaliburuak. Horietan maiz ironia eta kritika zorrozki zerabiltzan. Formaz sonetoak lantzen saiatu zen, euskaraz maizegi egin ez dena. *Olabeagatik* poemaz 1969.eko Bilboko poesi lehiaketan garaile gelditu zen.



Alfonso Irigoien, Durango, 1996-XII-06

Euskara batuari dagokionez, hasieran batasuna begi kritikoz ikusi arren, Alfonsok hura berehalaxe onartu zuen. Euskara batuan euskalki guztiak eta herriko euskara mintzatuak eduki behar duten partaidetasuna eta zeregin osagarria behin baino gehiagotan azpimarratu zituen, gure jaurerriko lexiko aberats eta berezia guztion literatur euskarari integratzen ahaleginduz. Batasunaren alde egindako lanen artean, aditz batuaren batzordean izandako partaidetza, deklinabidea finkatzeko 1978an Bergaran aurkezturiko lana eta azken urteotan onomastika batzorkide gisa egindakoak aipa daitezke, gramatika batzorderako prestatuturiko txostenak ahantzi gabe.

Autonomi aro berrian bigarren mailako irakaskuntzarako institutuetan lehenbiziko euskal katedrak sortu zirenean, 1980. urtean Alfonso Irigoienek katedra bat lortu eta Durangoko Frai Juan de Zumarraga Institutuan urtebete eman zuen irakasle moduan.

Gure literatura klasikoa arretaz miatu eta Etxepare eta Leizarragaren euskararen aztertzaile porrokatua izan dugu, euskal aditz sistema zaharra bereziki arakatu. Atsotitzen ikerketa, bestalde, arlorik gogokoenetakoa zuen. Iruñeko 1596.eko esaera zaharrak maiz jorratu ditu, esaldi zailen eta bihurrienak batik bat. Eta hor jo eta ke saiatu da, hil arte, aurtengo abenduan, Durangoko Liburu eta Diskoan Azokaren ondoan Euskaltzaindiak antolaturiko Paremiologi Ihardunaldietan buru-belarri parte hartu zuen eta.

Alfonso Irigoienek gehien eta sakonen landu duen arloa, ordea, onomastikarena izan da. Horrexerri buruz egin zuen, hain zuzen ere, Ricardo Zierbideren zuzendaritzapean, bere doktorego-tesia, *La Lengua vasca en relación con la antroponimia y otras cuestiones medievales* izenarekin 1983an Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztu zuena. Lan hori Antonio Tovarrek, Koldo Mitxelena, Julio Caro Barojak eta José Antonio Pascualek osaturiko epaimahaiak aztertu eta kalifikatu zuten. Eta zinez esan daiteke arlo horretan, Mitxelena galduz geroztik, Alfonso izan dugula Euskal Herriko espezialistarik hobereana, beraren ikerlanek garbi erakusten diguten bezala. Haren jakituria nabarmen azaldu digu luzaro Onomastika Batzorderako egindako lan ugarietan, sarritan euskaltzain guztiei helaraziak. Hortik landa, beste anitz ikerlan ere eman zituen argitara: *Sobre el topónimo Gasteiz y su entorno antropónimo* (1981), *Las lenguas de los vizcaínos: Antroponimia y toponimia medievales* (1985), *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco* (1985).

Lan asko *Fontes Linguae Vasconum* nafar aldzkarian, *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*-n, *Euskera*-n eta bere kontutik argitaratzen zituen *De re philologica linguae vasconicae* izeneko bost liburu mamitsuetan irakur daitezke (1985-1996). Arlo horretan Alfonso Irigoienek ongi heldu zion informatikaren desafiari eta oso goiz hasi zen lanean ordenadoreekin, bere idazlanen autoedizioetan trebetasun eta kalitate handia lortu arte.

Bestaldetik, Nazioarteko hizkuntzalaritza-bilera askotan parte hartua zen Irigoien. Aspaldiko urteotan, Ricardo Zierbide irakaslearekin batera, *PaiRom* proiektuaren partaide zen, Euskal Herriko euskal eta erdal onomastikaren zehaztasunak kanpoko iker-tzaileei helarazteko. Hori dela eta Pisan 1988an egindako lehenbiziko elkarraldian hasi eta igaz Udinen ospaturikoan buka, guzti-guztietara joan zen Irigoien.

Bilbon, F. Krutwig, J. Pujana, Josu Lavin eta beste adiskide batzuekin *Jakintza-baitha* izeneko kultur elkarte greko-latindarra eratu zuen, kultura klasikoak mendealdeko zibilizazioan izandako garrantzia nabarmendu eta horren eragina bultzatu nahian. Ildo horretatik, euskarak nazioarteko hitzak bereganatzeko prozeduran latindar eta gre-

ziar iturriak ondo azpimarratzen zituen beti, hor F. Krutwigekin bat etorritz, eta, alde horretan, hil baino bi urte lehenago, *Pertsona-izenak euskaraz nola eman*, exotoponimiari buruzko eranskinarekin, eman zuen argitara Deustuko Unibertsitatean, bere iritzia eta proposamenak azaltzeko. Anekdotari moduan, Ernazimenduan, eta geroago ere, zenbait kultur elkartetan sartzean egin ohi zen bezala, Alfonso Irigoienek izen berria hartu zuen, Ακροπολιος, hots, bere euskal deitura bera, baina grezieraz emana.

Bilboko hiriko bizitza kulturean betidanik hartu zuen parte Irigoienek. Euskal jai, hitzaldi, euskara eta ikastolen aldeko ibilaldi eta antzeko ospakizunetan ere maiz agertzen zen. Prentsan, gainera, aldizka idazten zuen, bai euskaraz eta bai erdaraz, eta horregatik oso pertsona ezaguna zen. Hortixek heldu zitzaion, noski, 1993.ean Bilboko jaietako pregoalaria izateko ohorea, eta hartarako bereziki egindako jantzi dotore batekin pregoia bota ere bai: euskaraz eta greziera klasikoz gainera!

Pertsona moduan umoretsua eta atsegina izan ohi zen, desinteresatua eta eskuzabala, tranquil eta patxadazkoa, eta jan-edanak, jaialdiak, omenaldiak, bertso-saioak eta zeremoniak oso gogoko zituen. Horrek ez zion eragozten —gizona gizon edo lastazaku!— gustuko ez zituen egoera edo pertsonen aurrean noiz edo behin ateraldi biziegiaren batekin erantzutea. Dena den, umorez zegoenean, bera ere bertsoetan hasten zen, eta orduan bere ohiko ironia zerion. Hizkuntzari dagokionez, herri-sena eta jendearekiko lotura ez zituen behin ere galdu, eta euskara herritar eta landuaren arteko oreka zailean, esan daiteke beti erdian mantentzen ahalegindu zela.

Dakigunez, ez zen inoiz afiliaturik egon inongo alderdi politikoa, eta ideologiaz bere burua eszeptiko eta liberal gisa aurkezten zuen. Hori dela eta, talde politiko jakin batekoa izan ez arren, eta halere, euskara eta bertsoaritzaren alde zebilelako, frankismo garaian luzaro karlista edo poliziaren konfidentea zela zabaldu zen, Alfonsok berak barrezka kontatu ohi zuenez. Egia aitortzeko, ordea, zin-zinez esan daiteke pentsaeraz abertzalea izan zela guztiz, eta hori argi utzi zuen euskadunon autodeterminazio-eskubidearen aldeko manifestaldietara joan eta hori aldarrikatzeko manifestu publiko bat sinatzean.

Esaniko merezimendu guztiongatik, eta seguraski denborarik ezaz hemen biltzeke dauden beste askorengatik ere, bidezko zorra kitatzen dugu gaur Bizkaiko seme eta bilbotar euskaltzain honen oroitzapena gure artean gogoratu eta ohoratzean. Baina ez dezagun ahantz, Alfonsori egin dakiokkeen omenaldirik onena eta, aldi berean, hark lukeen gogokoena hauxe dela, berak bukatzeke utziriko lanak guk aurrera eramatea, guztiok euskararen alde ekinez jarraituz.

Bera ezaguturik, uste dut, haren hilarrian epitafio bat jartzekotan, gustukoa lukeela igaz laurehun urte Irufean argitaratu zen euskal esaera zahar hau jartzea: —Gal bedi gizona eta ez haren ospe ona—. Edo agian beste honako hau, latinez: —Verba volant, scripta manent—. Esan dugu.

Bilbon, 1997-I-31an

Federico Krutwig eta Xabier Kintana